

**LEHENBIZIKO**  
**INKESTA GEO-LINGUISTIKOAK EUSKAL HERRIAN**  
**FRANSES LEHEN INPERIOAREN DENBORAN:**  
**IPAR ALDEAN BILDU DOKUMENTUAK**

Beñat OYHARÇABAL  
CNRS

**SUMMARY**

The first linguistic survey made in the Basque Country was carried out by Coquebert de Montbret, who was responsible for the Statistical Office in the Ministry of Internal Affairs under the first Empire, and who began an extensive research programme around 1806.

Some of the documents which Coquebert received from the Mayor of Bayonne, Dechegaray, are presented: the parable of the prodigal son, a text of 30 lines of prose, some verses on the a religious theme, other verses on a poetic subject.

**RESUME**

La première enquête linguistique réalisée en Pays Basque est à mettre au crédit de Coquebert de Montbret, responsable du Bureau de la Statistique au Ministère des Affaires Intérieures sous le Premier Empire et qui mit en route vers 1806 une vaste investigation sur les langues de l'Empire.

Sont présentés quelques documents que fit parvenir Dechegaray, alors maire de Bayonne, à Coquebert: la parabole de l'enfant prodigue; un texte de 30 lignes en prose; quelques vers sur un sujet religieux; d'autres vers sur un sujet poétique.

Berrikitan argitara emanak izan dira, edo laster eginen dira, euskararen mugez egin lehen mapak, joan den mendearen hastapenean Coquebert de Montbret delako jaunaren gomendiotan eginak, bai mugaz ipar aldean eta bai hego aldean ere (OYHARÇABAL 1992a). Idazlan berean inkesta geo-linguistiko hori zer gisatan obratua izan zen eta haren ondorioz aipagarrienak zein izan ziren gaingiroki bederen ikus daiteke. Hargatik, mapa horietaz lekora jaso ziren beste dokumentuak ez baitziren aipatzen han, hutsune horren partez betetzera heldu da txosten hau.

Coquebert de Montbret-ek glosografia gaietan ikertu zituen ponduen artean bi atal nagusi bereiz daitezke: alde batetik datu geo-linguistikoak hizkuntza eta dialektoen eremuen finkatzeko bilduak, beste aldetik hizkuntz datuak berak, mintzaira bakoitzaren izaera edo begitartearen itxuratzeko balia zitezkeenak.

Lehenbiziko atala denaz bezainbatean gauza guti erranen dut hemen, baina bigarrenaz, berriz, gehiago, baitira esku-izkiribu batzu, Coquebert de Montbret-ek ipar aldean Dechegaray Baionako auzapezaren bitartez eskuratu zituenak, eta, hain zuzen, hemen aurkeztu eta argitara eman nahi genituzkeenak. Beren hurrian, garai hartan eta Parisen egonik, holako lan baten aitzina eramateko zer-nolako jokabideak ziren aski ontsa erakustera ematen digutela uste dut. Bestalde lekuko gisa nor baliatua izan zen ez baita agertzen esku-izkribuetan, Salvat Monho isturiztarraren idazlan batzu erabiliak izan zirela ikusiko dugu.

### Coquebert de Montbret-en inkesta (1806-1807)

Charles Coquebert de Montbret Barneko Ministerioko Estatistika-gintzaren Bulegoko zuzendari zen 1806.ean. Gizon jakintsua zen, eta gizartea hobeki ezagutu beharrez anitz azterketa bidean eman arazi zuen, de Champigny ministroaren laguntzaz eta bere karguak ematen zizkion ahalez baliaturik<sup>1</sup>.

Gisa horretan, orduan harekin lan egiten zuen Eugène bere seme gaztearen (1885-1849) eraginez eta honen ardura pean, frantses Inperioan mintzatzaren ziren hizkuntzez ere ikerketak eginarazi zituen 1806.etik 1812.a arte<sup>2</sup>, bai

1. Ikus horretaz, Brunot (1927) eta Simoni-Aurembou (1989). Vinson-ek (1891) ere Coquebert-ek egin euskarazko kopia batzu aipatu zituen (ik 9. oharra), baina inkesta batere ez.

2. 1812.ean Manufaktura eta Gomertzioko Ministerioan izendatu izan zen Charles Coquebert de Montbret, eta Eugène, haren semea, berriz, Laborantzako Ministerioan. Honen entseiu guzietatik, ez du iduri 1812.etik aitzina segida ofizialik batere izan zuela inkestak (ik. 3. oharra). Hala ere, Eugène Coquebert de Montbret bere baitarik eta bere kondu aitzina jarraiki zen luzaz eta luzaz lan horretan, 1831.ean bere *Essai d'un travail sur la géographie de la langue française* argitara eman baitzuen. Azkenean hemen aurkezten ditugun dokumentuak bere artxibo pertsonaletan atxiki zituen, hil ondoan Rouen-eko hiriko bibliotekak bildu baitzituen. Mapak, haatik, Pariseko biblioteka nazionalean dira, dokumentu horietarik batzuk bederen ministerioan gelditu zirelako marka.

Frantzian berean eta bai auzo erresumetan ere, Inperioak bere hegal-aztaparretan hartzen zituen neurrian bederen. Horrela hasi zen, geroztik Coquebert de Montbret izenaz deitua izan den inkesta linguistiko harrigarria, zorigaitzez sekula behar bezala argitara eman izan ez dena<sup>3</sup>.

Hari esker obratu ziren Frantses Inperioan hizkuntza bakoitzak zenbatsu mintzatzaile zituen jakiteko eginak izan ziren lehen azterketak. Horrela dakigu 1808.ean ipar aldeko Euskal Herrian 108.000 euskaldun bazirela guti goiti beheiti, hori baitateke gai horretan burutu izan den lehen zenbaketa funski egina<sup>4</sup>.

Euskararen lehen mapak ere ordukoak dira. Mugaz hego aldekoa Madrileko Enbaxadoreak igorri zuen 1807.ean, nahiz ez den dudarik Enbaxadorearen lankideek gaizki ulertu zituztela bidali izan zitzaizkien zenbait informazio (OYHARÇABAL 1992b).

Mapa eta muga kontu horietaz landa, ordean, ez du iduri Madrileko Enbaxadako kargudunak euskarazko dokumentuen biltzera ardura handiegiz entseiatu zirela, ez eta hego aldeko euskaltzaleekin harremanetan jarri zirela<sup>5</sup>. Azkenean W. von Humboldt-engana joko du E. Coquebert de Montbret-ek euskarazko testu zenbaiten biltzeko (ikus 1811.ean idatzi zion gutuna)<sup>6</sup>. Segur

3. Eugène Coquebert de Montbret Laborantzako Ministerioan izendatu zutelarik, Laborantzako ministroari inkesta segi araz zezan galdatu zitzaion, baina alferrik. Ministroari karia horretara egin gutunaren pasarte adierazgarrienak argitara ematen dira gorago aipatu idazlanean (Oyharçabal 1992a).

4. Dakidanaz, ez-ezaguna zen zenbaketa hori orain artino. Ikus *Annuaire présenté à S. M. l'Empereur et Roi par le Bureau des Longitudes* delakoa, urte guzietz argitara ematen zena. Urtekari horretan kapitulu bat bazen Inperioko jendetzari zegokiona, hartan departamendu bakoitzaren jendetza bereziki agertarazten baitzen. 1808.eko urtekarian (ondoko urtean aurkeztua izan zen), aurkitzen da *Relevé de la population par départemens (non compris les militaires) telle qu'elle a été trouvée d'après les recensements par communes, faits dans le cours des années 1806-1807-1808* delako atala. Haren ondotik Coquebert de Montbret-ek izenpeturik kausitzen da beste dokumentu hau: *Relevé général de la Population de l'Empire, selon les différentes langues que parlent ses habitants, et en nombre ronds, sans les militaires:*

- langue française .....	28,126,000
- langue italienne .....	4,079,000
- langue allemande .....	2,705,000
- langue flamande .....	2,277,000
- langue bretonne .....	967,000
- langue basque .....	108,000

Ohar hau heldu da ondotik orrialde berean: *Nota: Sous les noms de langue française, italienne, allemande, etc... on a compris les patois qui se rapportent à l'une ou à l'autre de ces langues. On a fait des articles séparés pour le bas-breton et pour le basque, parce que ce sont des langues particulières et qui diffèrent radicalement soit entre elles, soit des langues dérivées du latin, soit de l'allemand, dont le flamand est un dialecte.*

5. Korrespondantzia hori laster argitara emanen da (Oyharçabal 1992b).

6. Hona nola ari zitzaion von Humboldt-i Coquebert de Montbret gutun horretan: *Suchant que pendant votre séjour en Espagne vous vous êtes livré à des recherches approfondies sur*

dena da, Parisen eta Rouen-en gelditu diren dokumentuetan bihi bat ez dela hego aldeko euskalki batean idatzia denik, Madrildik 1807.ean igorri haur prodigoaren parabolaren euskarazko itzulpena bera ere, duda izpirik gabe lapurteraz idatzia baita (OYHARÇABAL 1992a, itzulpen hura hartan argitaratua baita).

Ipar aldean, berriz, bestela gertatu ziren gauzak. Castellane prefetaren eskutik egina izan zen hango euskararen mugen mapa 1806.ean, arras ongi eta xeheki. Hargatik, horretaz bestalde ere Baionako auzapezak euskarazko idazki batzu hel arazi baitzizkion Coquebert de Montbret-i, dokumentu horien berri ematen dugu hemen.

### **Rouen-eko hiriko bibliotekako euskarazko dokumentuak<sup>7</sup>**

Coquebert de Montbret-ek bildu euskarazko dokumentu gehienak Rouen-eko hiriko bibliotekan dira, Pariseko biblioteka nazionalean Madrildik igorria izan zen haur prodigoaren parabolaren itzulpena baizik ez baita (NAF 5912, 351-2)<sup>8</sup>.

Rouen-en berriz euskarazko idazkiak hiru dokumentu multzotan bildurik daude Coquebert de Montbret-en funtsean: 181, 433, eta 721 zenbakien pean<sup>9</sup>.

#### **- 433 multzoa. Sei esku-izkiribu<sup>10</sup>:**

Multzo horretako sei esku-izkiribuek, ondarrean, urtea eta informatzaile-aren izena dakarte: 1811, Chegaray Baionako auzapeza (hola idatzia da alka-tearen izena, nahiz Baionan Chrysostome Dechegaray zen urte hartan Baionan auzapez).

*L'origine, les mœurs et le langage du peuple basque, j'ai pensé, Monsieur le Baron, que personne ne serait plus en état que vous de remplir la lacune qui s'est fait remarquer dans les notions ethnographiques et glossographiques que possède mon ministère. (...) Je souhaiterais en particulier obtenir de vous quelques échantillons de la langue basque accompagnée d'une interprétation interlinéaire absolument littérale dans laquelle sans l'attacher en aucune manière à l'élégance du style (sic), on s'applique seulement à donner une juste idée de la construction des phrases et à bien rendre l'exacte valeur de chaque mot.* (Rouen-eko Biblioteka, Coquebert de Montbret-en funtsa, 433. m.).

7. Eskerrak bihurtzen dizkiot Rouen-eko V. Neveu, Rouen-eko bibliotekako kontserbatzaile-ordeari, dokumentu horien biltzerakoan eskaini didan laguntzagatik.

8. Itzulpen horren kopia bat Rouen-en ere kausi daiteke (izkirio garbian baina huts asko dituela): Coquebert de Montbret-en funtsean, 489 multzoa.

9. Laugarren multzo batean (721) mapen egiteko baliatu nota batzu bildurik daude, partez Brunot-ek (1927) horien berri eman baitzuen.

Bestalde, beti funts berean Sylvain Pouvreau-ren Vocabulaire basque delakoaren kopia bat ere bada, 1837.ean erret-bibliotekako aletik egina (1674 (336)) eta halaber Oihenarten atso-titzen eta neurtitzen kopia bat ere, 1657.eko ediziotik 1836.ean egina (1675 (565)).

10. Multzo berean Humboldt-i 1811.ean idatzirikako gutunaren kopia ere bada; ik. 5. oharra.

1<sup>11</sup>. *Haur ontassun barriatçaillearen (sic) Parabola, San Luquen arabera, hamabortz garren capituluan*. Itzulpena ondoan. 2 orrialde.

1bis. *Haur ontassun barriatçaillearen Parabola, San Luquen arabera, hamabortz garren capituluan*. Aurreko testua da baina hitzez-hitzezko itzulpena lerro-artekaturik duelarik. 3 orrialde.

2. 29 lerrotako idazki bat, ondoan itzulpena duela, eta Euskal Herriaren aurkezpena egiten duena. Orrialde bat.

3. Bertsu batzuk: *Cantica Predikua*z, itzulpenarekin. Orrialde bat. Bertsu hauek batere dudarik gabe Salvat Monhorenak dira, Lafitteren bilduman (1972) *Jaunaren hitzaz (predicua*z) tituluaren pean aurki baitaitezke (114. orr.).

4. Bertsuak, *Poeten errenkurac Apolonori* izenburuaren pean emanak, itzulpenarekin. Orrialde bat. Bertsu hauek ere Monhorenak dira, Lafitteren bilduman *Poeten errenkurak Apolonen kontra* tituluarekin agertuak (68. orr.).

5. 3. esku-izkiribuzko bertsen beste kopia bat. Bi orrialde.

6. Gorago aipatu 4. esku-izkiribuzko bertsen beste kopia bat. Bi orrialde.

#### - 489 multzoa. Hiru kopia:

1. Madrildik igorri haur prodigoaren parabolaren itzulpenaren kopia bat (ik. 9. oharra). Lau orrialde.

2. Beste testu beraren itzulpena, Leizarragaren 1571.eko liburutik hartua. Lau orrialde.

3. Berriz testu bera, 1828.ean Baionan argitaratu *Jesus Christo gure Jaunaren testament berria Lapurdico escuararat itçulia* liburutik hartua. Bi orrialde.

#### -183 multzoa. Bi kopia:

1. Berriz seme prodigoaren parabolaren itzulpena, Fleury-Lécluse-ren gramatikatik hartua (hau, Vinson-ek salatu digunaren arabera, Leizarragaren idazkitik ari izana zen gehienik). Hiru orrialde.

2. Gorago (433 multzoko 2. dokumentua) aipatu testuaren kopia bat itzulpenarekin. Lau orrialde.

Ikus daitekeenaz, idazki guti bildu ahal izan zuen Euskal Herritik Coquebert de Montbret-ek inkestaren denboran. Alabaina, 183 eta 489 multzoetako kopia gehienak liburuetarik eginak izan dira, inkesta bera hasi zen baino anitez geroago. Idazlan honetan, ordean, 1811.ean inkestaren karietara bildu dokumentuak bakarrik ditugu argitara emanen, erran nahi baitu 433 multzoan atxiki lau testuei dagozkienak.

11. Zenbakia azpimarratua delarik, zenbakuntza esku-izkiribuetakoa da.

## San Luken ebanjeliotikako itzulpena

Hemen hitzez hitzeko itzulpena duen 1bis esku-izkiribua argitaratzen dugu, beste kopiak (1 zenbakia dakarrenak) huts bat zuzentzen duenean kakoen artean seinalatzen dugularik<sup>12</sup>:

Haur ontassun barriatcaillearen Parabola, san Luquen arabera, hama-bortz garren capituluan.

*Parabole de l'Enfant Dissipateur de bien, selon S<sup>t</sup> Luc dans le quinzième chapitre.*

Guïçon batec bacituen bi seme, ceinetaric gasteenac errancion  
*homme un avoit deux fils, desquels le plus jeune dit*  
 bere aitari: ene aita emandieçadaçu çure onetarik ethorri  
*son à père: mon père donnez à moi votre du bien échu*  
 behar çaitana: eta aitac eguin cioten bere onen partilla egun  
*devoir à moi: et le père fit à eux son du bien le partage, jour*  
 bacarren ondoan, bi haur horietaric gasteena, bildu ondoan cituen  
*du petit nombre après, deux enfants de ceux-ci le plus jeune avoir amassé après ce qui*  
 guciac gancen lecu arrotz hainitz urrun batetarat, c[e] inetan  
*tout alla endroit étranger fort loin dans un, dans lequel*  
 sunsitu baitçuen bere on edo içate gucia sobranietan eta  
*il dissipa son bien ou avoir tout en excès et*  
 arlotequerian. guciac chahutu cituenian, gossete handibat aguertucen  
*en débauche. tout dissipé après avoir famine grande une parut*  
 lecu hartan eta hassicen beharretan errortcen (sic). gancen beraz.  
*endroit dans cet et il commença en nécessité tomber. il alla donc*  
 eta jarricen lecuco jendetaric bati cerbitçu bihurtcen, ceinac  
*et se mit, de l'endroit des gens à un service à rendre, lequel*  
 egorri baitçuen bere baster[-] etche baterat, han cherri çaintceco  
*l'envoya sa maison des champs à une là cochons pour garder*  
 eta han atseguin içanen çuen bere sabelaren betetçia cherriec  
*et là plaisir il aurait eu son ventre remplir les cochons*  
 jatençuten achaletaric: bainan nihore etcioen hautaric ematen.  
*mangeoient des ecosses: mais personne ne lui de celles -ci donnoit*  
 azquenian bere baitan sarturic, errançuen, combat soldataco  
*pour la fin son en lui même rentrés dit, combien gagés*  
 sehi dire ene aitaren baitan, ceinec baitute, behar duten baino ogui  
*serviteur sont mon du père chez, lesquels ont, nécessaire ils ont que pain*  
 guehiago: eta ni hemen gossez hiltcen hari naiz. gan behar naiz  
*plus: et moi ici de faim mourir fais-je. aller dois je*

12. 1bis kopiak aditz lexikala eta laguntzailea maiz eta maiz loturik ematen ditu. 1 kopiak, ohituraren arabera, bereizten ditularik. Segurenaz ere, hitzez-hitzez itzuli nahiak sortarazi baitu aldaketa hori, 1bis kopia bere hartan utzi dugu pondu horretan.

aurquitu behardut ene aita, eta erran behardiot: ene aita ceruaren  
*trouvé il me faut mon père, et dire il me faut à lui: mon Père, du ciel*  
 eta çure contra beccatu eguin dut: eta ezdut merezi çure semea  
*et de vous contre péché fait j'ai; et je ne mérite pas votre fils*  
 deitua içatea. iharducaçu enequin çure soldataco sehitaric  
*appellé être. agissez moi avec de vos gagés serviteurs*  
 batequin beçala. gancen beraz, eta etho[r] icen bere aitaren  
*un avec comme. il alla donc, et il vint son père*  
 causitcerat. urrun celaric oraino, bere aitac icussi cuen eta  
*pour trouver. loin étant encore, son père vit le et*  
 urricalmenduz uquitua içancen, eta laster eguiten çuelaric  
*de commisération touche fut-il, et vite fesant*  
 haren ganat, aurtiquitcen du bere burua haren leporat eta  
*lui vers jette- il sa personne de lui du cou et*  
 bess arcatuçuen. bere semeac errancion, ene aita beccatu eguin  
*il l'embrassa son fils lui dit, mon père péché fait*  
 dut ceruaren eta çure contra, eta ezdut mereci çure semea deitua  
*j'ai du ciel et de vous contre, et je ne mérite pas votre fils appelle*  
 içatea. aitac erraten diote orduan bere sehiei: ecartçue bereala  
*être. Le père dit alors à ses serviteurs: portez d'abord*  
 arroparic ederrena, eta huntaz besticaçue, eta emaçue errian  
*d'habit le plus beau et de lui revêtez-le, et mettez lui au doigt*  
 errestun (sic) bat eta çangotan çapatac. ecartçue ere chahal guicena  
*anneau un et aux pieds des souliers, portez aussi veau gras*  
 eta hilçaue otuntçagaitecen, eta igun jate onbat: ceren ene semea  
*et tuez-le: mangeons et fessont chere bonne: parce que mon fils*  
 ceina hemen baita, hil baitcen eta biztu baita, galdu cen eta  
*lequel ici est, mort étoit et ressussité il est perdu il étoit et*  
 aurquitu baita. hassi ciren beraz estai eguiten. bisquitarte hortan  
*trouvé il est. commencé ils avoient donc festin a faire. intervalle dans cet*  
 seme çaharrena, ceina baitçen alhorretan itçulicen, eta etchetic  
*le fils le plus âgé, lequel étoit dans les champs, revint, et de la maison*  
 hurbil cenean, entçun cituen boz arranjatuac eta dantçan  
*proche lorsqu'il étoit, entendu il il avoit des voix ajustées et à danser*  
 hari cirenen abarrotsac. Deituçuen beraz sehitaric bat,  
*qui faisoient de ceux les bruits. appella-il donc des serviteurs un,*  
 eta galdeguitencion cercen hori. schiac ihardetsicion: çurc  
*et il demanda à lui ce que c'est cela. Le serviteur répondit à lui: votre*  
 anaña itçuli da, eta çure aitac hildu chahal guicena, ceren berriz  
*frère revenu est, et votre père tué a veau gras, parce que de nouveau*  
 icuztenduen (sic) ossassunian. horrec saminian eman ondoan  
*voit-il en santé. cela en colère mis après qu'il eut*

etcuen sartu nahi. baina aita ilquicen eta othoitzea (*sic*) hassi  
*il entrer ne voulut pas: mais le père sortit et par des prières il commença*  
 citcaion. horren gainian hitça harturic, errancion aitari:  
*à lui cela sur parole ayant pris, il dit au père*  
 horra jadanic haren bertce urte cerbitçatcen çaitud[a]lla, eta  
*voilà déjà tant d'années sers vous et*  
 ezdiot egundaino çure manutaric bati uco eguin, eta bizquitartean  
*je n'ai jamais de vos ordres à aucun refus fait, et cependant*  
 ezdautaçü egundaino eman pittica bat ene adizquidequin atseguin  
*vous ne m'avez jamais donné chevreau un, mes amis avec plaisir*  
 hartcico (*sic*): bainan itçuli den pondutic bertce çure semea, ceinac  
*pour prendre: mais revenu aussitôt qu'il est l'autre votre fils, lequel*  
 jan baitu bere ontassuna emaste galduequin hilduçü harençat  
*mangé a son bien les femmes perdues avec, tué avez pour lui*  
 chahal guicena. Orduan aitac errancion: ene semea, beti enequin  
*veau gras. alors le père dit à lui: mon fils, toujours moi avec*  
 çare, eta ene guciac çureac dire: bainan estaiac behar ciren, eta  
*vous êtes, et mes tous à vous sont: mais les festins nécessaires étoient, et*  
 bozcariatu behar guinen, ceren çure anaia, ceina hemen baita, hil  
*réjouir étoit nécessaire nous, parceque votre père, lequel ici est, mort*  
 baitcen, eta biztu baita, galdu baitcen, eta aurquitu baita.  
*il étoit, et ressucité il est, perdu il étoit, et retrouvée il a été.*

M. Chegaray. Maire de Bayonne 1811

## Euskal Herria aipatzen duen hitz laxozko idazkia

Idazki hau 433 multzoko kopiaren arabera ematen dugu. 183 multzokoa arras berdina da, baina laburragoa (*izan direno* hitzetan bukatzen delarik). Bestalde Monhoren bertsu hauek agertzen dira haren ondarrean: *mendiac bez-titzen tutzu, bai sorhoac belharrez, campainetaco arbolac hanbat fruitu ederreç.* Itzulpena honelakoa da: *vous habitez (sic) les montagnes et les près d'herbe verte et ornez les arbres de la campagne de tant de beaux fruits.*

Escal herri frantsesa bertz-orduz composatua hirur herri alde edo provincia ttipiz, laphurdiz, basse-nabarrez eta çuberoaz, orai pirenea aphaletaco departamenduaren parte bat eguiten duena, hedatzen da departamendu horrec icena hartu duen mendien oinetaric cascoiniaco itsasoaren baztererraino. Escaldunec lantzen deluzten (*sic*) lurrac agorrenetaric dire eta lanaren etongailuen bortchaz baicen ez dute ekhartcen cenbait fruitu aphur. horra nondic heldu den espainiarekilaco tratua, eta Bayonaco eta donibaneco portuataric eguiten cena gueldituz gueroz kausitcen baitire herri hauc hersturatic handiengan.

Escaldunen bici molde onec irauñ dute escaldunac bere herrian berech bici içan direno, eta cenbait denbora hautan irabaci duen corrupcionea khutsutic beçala sarthu da. laneco Gostuac, fede onac et-escal herrian bakharric eçagutua eta pratikatua cen erreliyione Garbiac eta sainduac eguiten cituen hango habitantez hanbat herritar on; et-ez da hura baicen errebelatu direnac bide onerat erakhar detzakenic.

*Le Pays Basque français autrefois composé de trois contrées ou petites provinces, le Labourt, la basse Navarre et la Soule, aujourd'hui faisant partie du Département des Basses Pyrénées s'étend des pieds des montagnes dont le Département a pris le nom jusqu'à la Côte de la mer de Gascogne; les terres que les Basques cultivent sont des plus stériles et ne produisent que quelque peu de fruits qu'à force de travail et de bonifications: voilà d'où vient que le commerce avec l'Espagne et celui qui se faisoit des Ports de Bayonne et de Saint Jean de Luz ayant cessé, ce Pays se trouve dans la plus grande détresse.*

*Les bonnes mœurs des Basques se sont maintenues, tant qu'ils ont vécu isolés dans leur pays et la corruption qui depuis quelque tems y fait des progrès y est entrée comme par contagion. Le gout du travail, la bonne foi, la Religion pure et sainte qui étoit la seule connue et pratiquée dans le pays Basque, faisoit de ses habitans autant de bons citoyens et il n'y a qu'elle qui puisse ramener à la bonne voie ceux qui se sont égarés.*

Mr Chegaray Maire de Bayonne 1811

**Bertsuak**<sup>13</sup>

**Cantika predikuaz**

1

Laster eigan predikura  
Jauna da mintzo çaikuna  
eta haren gantzudura  
bihotzac huntkitcen tuena  
Laster eigan predikura  
Jauna da mintzo çaikuna.

2

Jaunaren hitz sacratuac  
Justuac ditu consolaten  
eta Criman ohituac  
conbertitzerat gombidatzen  
Laster eigan predikurat  
graciaren urbururat.

3

Laster eigan predikurat  
Jaunaren ontassun handiac  
aditçailllen bihotzerat  
han issurtçen ditu graciac  
Laster eigan &c

**Cantique sur le sermon**

1

*Accourons au sermon, c'est le  
Seigneur qui nous y parle  
Sainte onction qui touche les coeurs  
accourons au sermon à la source*

2

*La parole sacrée du seigneur  
console les justes et invite a  
se convertir ceux qui sont  
habitues dans le crime  
accourons au sermon &c.*

3

*Accourons au sermon, c'est là  
que la grande bonté du seigneur  
verse les graces dans le cœur  
des auditeurs.  
accourons &c.*

13. Itzulpenak ez du beti bertsuen lerrokatzea errespetatzen; hemen 3 kopiaren arabera ematen dugu.

4

itsuac ditu arguitcen  
Jaunaren hitz botheretsuac  
barneco gaitzac sendatcen  
eta garbitcen lepratsuac  
Laster eigin &c.

5

Laster eigin predikura  
Jaunac han baitu irakhasten  
cerurat bide segura  
eta berac hartan guidatcen  
Laster eigin &c.

4

*La parole puissante du seigneur  
Eclaire les aveugles, guérit les  
maux intérieurs et nettoye les  
lépreux.  
accourons &c.*

5

*accourons au sermon  
parce que c'est là que le seigneur  
enseigne la voie sure du ciel  
et y guide lui même  
accourons &c.*

Mr Chegaray Maire de Bayonne 1811

**Poeten errenkurac Apoloni<sup>14</sup>**

1

Norentçat sor arazten du apolonec  
urhea hain escassa eguitecoz bere  
haurren phartea? Parnasseco Gobernuan  
ez da legue Justuric Ez beraz mirets  
poetec ez badute diruric

2

Burhasso bihotz gogorra ez dugu  
conprenitcen holaco diferenciac nota (sic)  
sofritcen çu Trionfan altchatua  
çaldiric ederrenez eta bethi çure  
haurrac herrestatuac oinez.

3

Çu pochiric friantenez bethi  
sassiatua edari deliciosoz bihotza  
goritua, çure haurrac ez dituçu  
batere urrikari gossea sofritcen  
dute, ura dute edari.

***Les reproches des Poètes à Apollon***

1

*Apollon pour qui fait-il naitre l'or  
pour faire si modique la part de ses  
enfants. il n'y a pas de Lois Juste dans  
le Gouvernement du Parnasse, ne soyez  
donc pas étonné si les Poètes n'ont  
point d'argent.*

2

*Père inhumain, nous ne comprenons  
pas comment vous souffrez de telles tutcun  
diférences. vous toujours porté en  
triomphe par les plus beaux chevaux  
et vos Enfants se trainent toujours à pieds*

3

*vous toujours rassasié de morceaux  
les plus friands et le cœur réjoui par  
des nectars délicieux, vous n'avez pas  
compassion de vos Enfants; ils souffrent  
la faim et ils ont de l'eau à boire.*

14. Kopistak bertsuen lerrokapena ez du errespetatu (ez kopia honetan, ez beste esku batena den bigarreanean ere); testua 4. esku-izkribuan bezala uzten dugu hemen. Errima AABB motakoa da; bertsuak 15 zangotakoak. Lauko moduan idatziak ziratekeen jatorrizko testuan. Lafittek ere modu horretan argitaratu zituen.

4

Mendiac beztizen tutzu, bai, sorhoac  
belharrez, canpainenaco arbolac hanbat  
fruitu ederrez; nondic heldu da poetac  
çure haur onhetsiac baitire sassoin  
hain circilki jauntciac?

5

Parnassean Dabiltcanen sabelac  
eta moltsac airez hantcen ez badire,  
ardura dire hutsac; arbassoen noblecia  
eta poeten fama carga dire, ez badute  
hirurgarren, fortuna.

4

*vous habitez (sic) les montagnes et les près  
d'herbe verte, et ornez les arbres de la  
campagne de tant de beaux fruits, d'où  
vient que les Poetes vos Enfants chéris  
sont en toute saison si mal vétus?*

5

*les ventres et les bourses de ceux qui  
fréquentent le Parnasse, s'ils ne sont  
pas gonflés de vents sont souvent vuides  
la renommée des Poetes sont à charge, si la  
fortune n'est pas leur compagne.*

Mr Chegaray Maire de Bayonne

## Dokumentu horietaz ohar zenbait

Ez du iduri Coquebert de Montbret-ek, edo inkesta egiazki tokian berean obratu behar zuen prefetak, edo beste kargudunek, laguntza handirik aurkitu zutela euskarazko dokumentuen biltzeko. Batere ez dira aipatzen ipar aldean berean aurki zitezkeen euskalkien arteko desberdintasunak, eta orduko lapurtar klasikoaren itxuran ematen dira horko lekukotasun bakarrak, artetarik baxe-nabartar ezaugarri batzuk agertzen direlarik. Jakin behar da Coquebert de Montbret-ek dialektologia mailako holako xehetasunak ere galdatzen zituela eta, noiz edo non, igortzen ere zizkiotela herri batetik besterako hizkuntz aldakuntzen zerrendak, edo herri auzoetarik lekukotasun bereziak.

Euskararen kasuan, hain segur bestelakotasunak urruntasunak bezala alde handiak tipitzen eta tipiak deusezten dituelakotz, ez zen horrelakorik gertatu, eta euskaldunak berak ere itxura guzien arabera ez ziren gauzen gehiago argitzera edo zehaztera soberarik lehiatu. Azkenean Baionako auzapezari esker bildu zituzten Parisen euskarazko dokumentu bakarrak, inkesta bera hasi zen baino bost urte geroago.

Horiek hola, lekukotasun horietan bi parte ditugu. Alde batetik hitz lotuzko testuak, eta bestetik hitz laxozkoak.

Bertsuak, badakigu segurtamen osoz norenak diren. Alabaina P. Lafittek duela hogeitau bat urte Salvat Monhoren olerkiak argitaratu baitzituen, haietan gure bertsu hauek hitzez-hitz aurki daitezke, beste titulu bat daukaten bi olerkitan.

Inkestako *Cantika predikua*-eko bertsuak *Jaunaren hitzaz* kantikan agertzen dira Lafitteren bilduman. Olerkiak hor hamalau kobla ditu, eta kopia-

ko bost koblak bildumako lehenbiziko bostei dagozkie (bigarrena eta hirugarrena kontrako ordenean direlarik).

Gauza bera gertatzen da *Poeten errenkuraz Apoloni* deitu olerkiarekin. Lafitteren bilduman *Poeten errenkurak Apolonen kontra* titulua du, eta zortzi koblak osatzen dute. Kopiako koblak bildumako olerkiko lehenbiziko lauei eta seigarrenari dagozkie<sup>15</sup>.

Monho 1811.ean Irisarriko erretorea zen, eta ez derrakegu, ea olerki horiek Dechegaray-k zuzenean inkestarentzat eskatu zizkion, ala berak edo laguntzaile batek, zenbait kaieretarik kopiatu zituen<sup>16</sup>. Azken hipotesiak itxura gehiago du, halere, zeren Monhok espresuki inkestarentzat bidali balitu bere bertsuak, hain segur haren izena gelditu baitzatekeen kopietan.

Hitz laxozko testuak bertsuekin batean igorriak izan bide ziren, baina ez du iduri Monhok idatziak zituela, nahiz bere bertsuetan honek ere Euskal Herriko mendien idorra eta agorra ere aipatu zituen (ik. *Garat gaztenaren eta Iturbidentzat*, 10. kobla). Seguramenez mintzatzea zaila bada ere kasu honetan, bitxi litzateke Monhok *partilla* edo *gan* bezalako formak erabiltzea. Bestalde Monhok *ei-* erroa erabiltzen du *egin*-en aginterako forma trinkoen moldatzeko, itzulpeneko pasartean berriz *i-* forma kausitzen dugularik.

1811.ean argitara emanikako ebanjelioetarikako itzulpen bakarra Leizarragarena zen. Idazlan hura, haatik, atzemangaitza zatekeen eta ez da segur, eskumenean izanik ere, informazio emailea hartaz baliatzea menturaturiko zela<sup>17</sup>. Zernahi gisaz ez zen horrela gertatu, ageri baita esku-izkiribuzko itzulpena Leizarragarenari ez darraiola. Haranederren itzulpena ere ez bide zuen begien aitzinean izan itzultzaileak, arras bestelakoa baita hura, orain P. Altunaren argitaralpenari esker errazki egiazta daitekeen bezala. Ba ote zen beste itzulpenik, ala inkestaren kariaz egina izan ote zen hau? Halatan, nork? Ez dakigu.

Bigarren hitz laxozko testua beste esku batena dela dirudi. Adibidez, *-ean* inesiboko hondarkia agertzen da hartan (*handienean*), San Luken itzulpenean, aitzitik, maizenik *-ian* dugularik, (*cituenian*, *azquenian*, *ossassunian*, *saminian*, *gainian* baina halere *cenean* eta *bizquitartean* ere; *betetcia* agertzen delarik bestalde, baina behin bakarrik). *Eta* juntagailuarekin ere aldeak badira: parabolaren itzulpenean *eta* beti osoki idatzia da, beste esku-izkribuan berriz

15. Lafittek olerki horretaz hauxe dio: "Ce morceau imité de l'antique est artificiel, mais nous révèle le goût de Monho pour la culture gréco-latine" (bilduma, 68. orr.).

16. Ez du iduri Monhoren bertsu horiek argitara eman izan ziren Lafittek egin arte. Bilduma osatuko zuen kaiera Harriague apezak eman zion Lafitteri 1930.ean. Lakarran erretore zelarik. Lakartar batek selairuan aurkiturik emana zion hari.

17. Haranederrek (baina ez Larramendik, haatik) biziki hitz gogorrak erabili zituen bere aitzin solasean Leizarragaren itzulpenaz mintzatzean. Bekatu zeukaketen orduko apezek, zenbait-tek bederen, pozoin hartarik den-mendrenik jastaraztea.

*et-* forman agertzen da ondoko hitza bokal batez hasten den hiru aldietan (*lanaren et-ongailuen, et-escal herrian, et-ez da hura baicen*).

Bigarren lerroaldi hau ere apez batek idatzia zuela iduri luke, erlisionearen aldeko ateraldi bero batekin bururaten baita. Ongi ikus daiteke hartan, ordukotz, ideia berrien hedapena (testuan aipu den *corrupcionea*, hots), nola euskaldunen jatorrizko bizimoduaren kontrakoa ikusia zen. 19. mendean gero eta zabaldukoago den ikusmolde hau jadanik finkatzen hasia zen beraz, ipar aldean ere. Nor ote zen testu labur horren egilea? Monho? Badirudi ideiak doi bat zabalago zituela hark. Robin? Nekez, horko euskara nolakoa den ikusiz. Nor, bada? Menturaz egun batez pondu hori argitzen ahalko dugu, baina anar-tean, bego hor galdera marka.

### Bonaparteren aitzinekoa

Gizon arradoa zen, guti bezalakoa, dudarik batere gabe, Eugène Coquebert de Montbret. Vinsonek kondatu zuenaren arabera (ik. haren *Bibliographie de la langue basque* horretan egiten duen ohar berezia, 104. orr.), bost urte zituelarik mutu eta gor gelditu zen, eta halare hizkuntzen ikas-teko jeinu eta gar berezi bat erakutsi zuen, arabiera eta malaiera bereziki ikasiz. Brunotek arrazoi osoz bazioen, hain segur ministerio batek ez zukeela holako inkesta lanik obratuko, norbait hor izan ez balitz gai horietan bereziki interesatua. Norbait hura, orduan hogeitaz bat urte doi-doia zituen Eugène Coquebert de Montbret zen.

Bonaparteren omenez egin den biltzar honetan, uste dut zuzen zen Eugène Coquebert de Montbret-i ere euskaltzaleek bere tokia ere eman geniezaion. Bonaparte euskal dialektologiaren egiazko aitzindaria izan bada, Coquebert de Montbret ere lehenago, zituen ahalekin, ildo beraren urratzen entseiatu zen, eta beldur naiz, Euskal Herrian uzta hurria bildu bazuen ororen buru, ez hark, baina euskaldunek berek, edo bederen herriko orduko kargudunek, izan zutela hobena.

### Bibliografia

- BONAPARTE, L.L., 1863/9, *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes et variétés, par le prince Louis Lucien Bonaparte*, Londres.
- BROCA, P., 1874/5, *Sur l'origine et la répartition de la langue basque*, Paris, Ernest Leroux, 1875; ikus, halaber, *Mémoires d'Anthropologie*, II, 1874.
- BRUNOT, F., 1927, *Histoire de la langue française des origines à nos jours*, Tome IX, *La Révolution et l'Empire*; 2ème éd. A. Colin, Paris, 1967.
- BUREAU DES LONGITUDES, 1807, eta ondokoak, *Annuaire présenté à S. M. l'Empereur et Roi par le Bureau des Longitudes*, Imprimerie Nationale, Paris.
- COQUEBERT DE MONTBRET, E., 1831, "Essai d'un travail sur la géographie de la langue française", in *Mélanges sur les langues, dialectes et patois*, Paris, Bureau de l'Almanach du Commerce.

- HARANEDER, I. de -, 1740/1990, *Jesu Christoren evangelio saildua*, P. Altunak paratu argitaralpena, Euskaltzaindia, Lekukoak 17, Bilbo.
- LAFITTE, P., 1972, *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821)*, Ikas, Baiona.
- MONHO, S. Ikus LAFITTE, 1972.
- OYHARÇABAL, B., 1992a, "Euskararen mugez egin lehen mapak (1806-1807)". Euskaltzaindia, *IKER* 6, Bilbo, 349-366.
- OYHARÇABAL, B., 1992b, "Euskararen mugak hego aldean 1807.ean: Coquebert de Montbret-en artxiboetan gelditu dokumentuak". *ASJU*-n argitaratzekoa.
- SIMONI-AUREMBOU, M.-R., 1989, "La couverture géolinguistique de l'Empire français: l'enquête de la parabole de l'enfant prodigue", in *Etudes de dialectologie et de géolinguistique offertes à Gaston Tuailton*, vol. 2, Ellug, Université Stendhal-Grenoble 3, 114-139. orr.
- VINSON, J., 1991, *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Paris, Maisonneuve: 2. argitaralpena (1984), Donostia, Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo".